

SARRERA

Lehen Hezkuntzako garaian oinarrizkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektiboa errespetatzea, egoera berrien antolaketa ahalik eta modu naturalean mantenduz, haur bakoitza kontuan izatea beharrezkoa delako. Lehen Hezkuntzako ikasleek egoera berrien aurreikuspena behar dute, ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatuko dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.

IKASTETXEKO UREN KUDEAKETA

Ura aurrezteko moduak gureak

Gure ikastetxea eraikitzerako garaian, ur kontsumoa murrizteaz pentsatu ote zen? Zenbat ur galtzen da alferrik ikastetxean? Zer egin aurrezteko?

Ikastetxeko ur ihesbideak atzemango ditugu eta ihesbideak konpontzeko neurriak proposatuko ditugu.

Ura aurrezteko gailuak identifikatu ahal izateko:

1. Komun tangak

- Tanga usteko 2 botoi izatea.
- Tanga barruan aldieroko ur kopurua mugatzeko sistema bat izatea. (adibidez ur botila bat)



2. Ur txorrotetan

-Aireztagailuak: Ur presio berdina lor daiteke ur emari gutxiagorekin. Iturriaren hasieran kokatzen da eta ura eta airea nahasten ditu, uraren emaria gutxituz baina presioa mantenduz.

-Botoidun iturriak: iturria botoi bati zapalduta ipintzen da martxan eta denbora bat soilik egoten da honela, bere kasa itzaliz.





Prozedura

Tanta patruilak osatuko dituzte ikasleek, 4-5 ikasle patruilako. Ikastetxeko komunak zenbatuko dituzte eta komun bakoitzean ondoko fitxa beteko dute.

Iturrietan neurtu irekitzen den bakoitzean ateratzen den ur litro kopurua eta erabaki zein litzatekeen ur kopuru egoki bat.

Adibidea:

URAREN IHESBIDEAK			
KOMUNAREN KODEA			
			KOM_01
	Zenbat?	Ura aurrezteko modurik?	Zein?
Iturriak	3	Ez	
Komunontziak	2	Ez	

URAREN IHESBIDEAK			
KOMUNAREN KODEA			
			KOM_02
	Zenbat?	Ura aurrezteko modurik?	Zein?
Iturriak	4	Bai	Guztietan ura aurrezteko iturri bereziak.
Komunontziak	6	Bai	Bi ur bolumen askatu ahal dituen ponpa.



URAREN IHESBIDEAK			
KOMUNAREN KODEA			
			KOM_02
	Zenbat?	Ura aurrezteko modurik?	Zein?
Iturriak			
Komunontziak			

Eztabaida

- Zer egin beharko luke zure ikastetxeak ura aurrezteko?
- Egin eskutitz bat zuzendaritzari eta esan zer behatu duzuen eta hobetzeko gomendioak eman.